

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2704

*332/2023 EBAZPENA, maiatzaren 2koa, Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendarigerentearena, zeinaren bidez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan Erizaintzako Zuzendaritzako Giza Baliabideen Ondokoa lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.*

Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuan Erizaintzako Zuzendaritzarako Ondokoa lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera

#### OINARRIAK

##### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

- a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-legepeko kontratuduna) eta plaza jabetzan edukitzea B1 lanbide-taldean.
- b) B1 lanbide-taldeari dagokion titulazioaren jabe izatea.
- c) Gutxienezko lan-esperientzia 4 urtekoa, B1 lanbide-taldean.
- d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerrako betebeharrak.

##### 2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

Esperientzia eta/edo prestakuntza osasun-kudeaketako lanpostuetan eta taldeen gaineko erantzukizuna.

Esperientzia eta/edo ezagutza baliabideen kudeaketan.

Prestakuntza/Esperientzia taldeen antolakuntzan, lidergoan eta zuzendaritzan.

Giza baliabideak kudeatzen laguntzeko tresnak ezagutzea.

Prestakuntza eta ezagutzak arlo hauetako tresnetan: kudeaketa, kalitate-ereduak, prozesuak, etengabeko hobekuntza, MGA.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen edo balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko izango da.

### 3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

### 4.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debabarreneko ESiko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Mendarozabal auzoa, 20850 – Mendaro). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Debabarreneko ESiko Langileen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Mendarozabal auzoa, 20850 – Mendaro), beren datu pertsonal guztiak eta curriculum vitae dokumentuarekin batera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada, gorkio, lan-legepeko kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

### 5.– Balorazio Batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake; eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua eurretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

### 6.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia EHAAAn argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

#### 7.– Prozedura amaitzeko ebazpena.

Honen bidez hasitako prozedurari amaiera emango zaio (lanpostua esleitzea edo betetzeke uztea), Osakidetzako Debabarreneko ESIko zuzendari-gerentearen ebazpenaren bidez, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta baita Osakidetzaren intranetean zein web-orri korporatiboan ere argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

#### 8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Mendaro, 2023ko maiatzaren 2a.

Debabarreneko ESIko zuzendari-gerentea,  
ASIER ESNAL ALBIZU.